EREINTZA
elkartea

# Kartel Lehiaketa
# XXXVI. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA
# Errenteria

Ereintza Elkarteak, Euskal Herriko Eskulangintza azokaren antolatzaileak, I. Kartel Lehiaketarako deialdia egin nahi du, kartel irabazlearen bidez azoka sustatzeko.

1. Tamaina eta euskarriak: 40x60 cm-ko kartela izango da (bertikala, inolaz ere horizontala edo etzana). Horrez gainera, kartela digitalki eginez gero, haren irudia duen CDa ere erantsi beharko du egileak, eta bereizmena 300 ppp-koa izango da.

2. Egile bakoitzak gehienez ere bi lan aurkeztu ahal izango ditu.

3. Kolorea eta teknika libreak izango dira.

4. Lanek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute.

5. Hona hemen kartelean idatzi beharreko testua:
**XXXVI. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA**
XXXVI FERIA DE ARTESANÍA DEL PAÍS VASCO
XXXVI FOIRE D´ARTISANAT DU PAYS BASQUE
2014 Maiatzak 1-4 Mayo
Errenteria

6. Hizkuntzaren harmonizazioa eta normalizazioa direla eta, Erakunde antolatzaileak aintzat hartuko du lodiz adierazitako izenburua gaztelaniazko eta frantsesezko izenburuen aldean nabarmenduta egotea. Lehiakide bakoitzak erabakiko du nola nabarmendu.

7. Aurkezteko epea: lanak aurkezteko epea 2014ko otsailaren 28an amaituko da.

8. Epaimahaia erakunde antolatzaileak izendatuko du. Martxoaren lehen hamabostaldian bilduko da, kartel irabazlea hautatzeko. Irabazleari jakinarazi ondoren, haren izena **www.ereintza.net** web orrian argitaratuko da, eta informazioa zenbait komunikabidetara bidaliko da.

# Concurso de Carteles
# XXXVI FERIA DE ARTESANÍA DEL PAÍS VASCO
# Errenteria

Ereintza Elkartea, organizadora de la Feria de Artesanía del País Vasco convoca el I Concurso de Carteles con objeto de promocionar la feria con el cartel ganador.

1. Tamaño y soportes: Tamaño 40 x 60 cm (vertical, nunca horizontal o apaisado). Además el autor/a adjuntará un CD con la imagen del cartel siempre que sea realizado digitalmente con una resolución de 300 ppp.

2. Podran presentarse un máximo de dos obras por autor/a.

3. Color y la técnica: Libre.

4. Las obras deberán ser originales e inéditas.

5. El texto correspondiente que tendrá que llevar el cartel será:
**XXXVI EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA**
XXXVI FERIA DE ARTESANÍA DEL PAÍS VASCO
XXXVI FOIRE D´ARTISANAT DU PAYS BASQUE
2014 Maitzak 1- 4 Mayo
Errenteria.

6.- La Organización por motivos linguísticos y de armonización del idioma valorará que el título remarcado en negrita vaya destacado respecto al castellano y francés. Será decisión del concursante la manera de destacarlo.

7. Plazo de presentación: El plazo para presentar las obras será hasta el 28 de febrero de 2014.

8.- El jurado será designado por la organización. Se reunirá la primera quincena de marzo para seleccionar el cartel ganador. Una vez comunicado a su autor/a, el nombre de la persona ganadora será publicado en la página web **www.ereintza.net** e igulamente se enviará a diferentes medios de comunicación para su divulgación.

Juan de Olazabal kalea 23, behea
301 Posta kutxatila
20100 Errenteria. Gipuzkoa
Tfnoa: 943526553

www.ereintza.com
eskulangintza@ereintza.com

9. Aurkezteko lekua: Lanak postaz bidaliko dira helbide honetara: Ereintza Elkartea. Juan de Olazabal kalea, 23. behea. 20100 Errenteria. Posta kutxa: 301.

10. Identifikazioa: Lanak goiburuarekin eta egilearen sinadurarik gabe aurkeztu beharko dira, gutun-azal itxian. Horrez gainera, goiburu bera erabili beharko da, egilearen identifikaziorako datuak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia aurkezteko.

11. Saria: Lehiaketaren irabazleak 600 € jasoko ditu.

12. Saria eman gabe geratu ahalko da, aurkeztutako kartelek ez badaukate behar adinako kalitate teknikoa.

13. Lan irabazlea: Erakunde antolatzaileak beharrezko material guztia (logotipoak, armarriak, etab.) emango die lehiakideei kartela egiteko. Antolakuntzak beharrezkotzat jotzen badu kartelean aldaketa grafikoren bat egitea elementuren bat gehitu edo kentzeko, ezarri egin ahal izango du aldaketa, egileari galdetu eta harekin adostu ondoren. Lan irabazlea ordenagailuz egina bada, autoreak euskarri informatikoa (CD) aurkeztu beharko du, kartelaren egiazko neurrian eta 300 ppp-ko bereizmenarekin.

14. Epaimahaiaren ahalmenak: Hautaketa prozesuko edozein unetan, epaimahaiak kanpoan utzi ahal izango du edozein lan, honako egoera hauetan:
• Lanaren autoretza zalantzagarria bada.
• Lanean ez badira ageri derrigorrezko testua edo osagaiak.
• Beste lan baten plagioa bada.
• Plagioa izan gabe, imitazioa bada, beste lan batean inspiratuta badago edo harekin bat badator eta, egoera horren berri izanda, epaimahaiak nahikoa arrazoi badu originaltasun merezimendurik ez duela erabakitzeko.

15. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da. Nolanahi ere, epaimahaiak erabakia berrikusteko eta ezeztatzeko aukera izango du, aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuren bat agertzen dela uste badu.

16. Kartel irabazlea Ereintza Elkartearen jabetzapekoa izango da, eta egileak kartel horren gaineko ustiapen eskubideak utziko dizkio, jendaurreko erreprodukzioaren, banaketaren eta komunikazioaren arloan. Hori guztiori esklusiboa izango da, eta azokaren alde egingo du.

9. Lugar de entrega: Por correo: Ereintza Elkartea. Juan de Olazabal kalea, 23 behea. 20100 Errenteria. Apartado de correos 301

10. Identificación: Los trabajos serán presentados bajo lema y sin firma del autor/a, en sobre cerrado y bajo el mismo lema deberán incluirse los datos para la identificación del autor/a, incluido número de teléfono y DNI.

11. Premio: La persona ganadora del Concurso percibirá 600 €.

12. El concurso podrá ser declarado desierto en caso de que los carteles presentados no tuvieran la suficiente calidad técnica.

13. Obra ganadora: Para la ejecución técnica del cartel se facilitará a los concursantes todo el material que deberán llevar incluído (logotipos, escudos, etc). Si la organización requiriese alguna modificación gráfica para incorporar o quitar algún elemento podrá imponer dicha variación, previa consulta y siempre colaborando con el autor/a. En el caso de que la obra ganadora se hubiera realizado con ordenador, su autor/a deberá facilitar el soporte informático (CD) a tamaño real del cartel y con una resolución de 300 ppp.

14. Facultades del Jurado: El Jurado podrá descalificar, en cualquier momento en el proceso de selección, todos aquellos trabajos en los que concurra alguna de las siguientes circunstancias:
• Los de autoría dudosa
• Los que no contengan los elementos ni el texto obligatorios.
• Los que considere que constituyan plagio de otras obras y los que
• sin poder considerarse como tal supongan una imitación, estén inspirados en otras obras o coincidan con ellas de tal forma que, una vez conocidas por el jurado tales circunstancias, le den motivo a decidir que les faltan méritos de originalidad.

15. El fallo del Jurado será inapelable. No obstante, el jurado podrá revisar y anular el fallo si considerara que concurre alguna de las circunstancias previstas en el párrafo anterior.

16. El cartel ganador pasará a ser propiedad de Ereintza Elkartea, considerándose además cedidos por el autor/a los derechos de explotación sobre dicho cartel en las modalidades de reproducción, distribución y comunicación públicas; todo ello con carácter exclusivo y a favor de la feria.

17. Aurkeztutako lanak jendaurrean erakutsi ahal izango dira Eskulangintza Azokan bertan. Epaimahaiak bere ustetan sari hori merezi dutenak aukeratzeko ahalmena izango du. Beraz lehiakide orok aukera hori onartuko du, eta kartelak Ereintza Elkartean / erakusketan utzi beharko direla Eskulangintza Azoka bukatu arte.

18. Lehiaketara aurkeztu eta saririk jaso ez duten originalak Ereintza Elkartearen egoitzan jaso ahal izango dira; horretarako eguna eta ordutegia garaiz jakinaraziko dira. Epe hori igarotakoan, azokak nahi duena egin ahal izango du inork hartu ez dituen lanekin. Azokak ez du inolako erantzukizunik izango aurkeztutako materialak garraiatzean, maneiatzean, erakustean, biltegiratzean edo antzeko zerbait egitean sortutako kalteen gainean. Ereintza Elkarteak ez ditu jaso gabeko kartelak postaz bidaliko.

19. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.

17. Las obras presentadas podrán ser expuestas al público en la propia Feria de Artesanía. El jurado se reserva la facultad de designar las que a su juicio merezcan esta distinción. Por tanto todo concursante admite esta posibilidad y la de que los carteles tendrán que estar en Ereintza Elkartea / exposición, hasta pasada la Feria de Artesanía.

18. Los originales presentados al concurso y no premiados podrán retirarse de la sede de Ereintza Elkartea en horario y días que se anunciarán oportunamente. Transcurrida esta fecha, la Feria podrá disponer libremente de los no retirados. La Feria no se hará responsable de los daños que puedan recibir los materiales entregados como consecuencia de su transporte, manipulación, exposición, almacenaje o similar. En cualquier caso Ereintza Elkartea no enviará por correo los carteles no retirados.

19. El hecho de participar en el presente concurso implica la aceptación total de las Bases.